



196. zenbakia

· APIRILA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Jon Aizkorbe

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira maiatzaren 5an bidalia

Olerkia



Itxialdiko bertsoak

(Doinua: Redemption Song)

// Besarkada irrati bidez
kezkaz zaudeten deneri
bakarrik zein haurdunaldian
gaixo, larri edo eri
Osasuneko langileei
lana galdu duteneri
Azaleko hainbat gauzetan
bizi izan gara igeri
baloreen aroa dator
nik zuri eta zuk neri
ikasiko dugunarekin
mundu berri bat sor bedi //

JON MAIA SORIA



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

“Kontzejua guztion artean eramatea da gure filosofia”

Duela bi urtetik hona Alkozko Pulunpe banatzailea da Cristina Balda Tornaria. Euskararen alde bere aletxoak jarri nahian hartu zuen ardura, eta gustura egiten du lan hori, jendearekin hitz egiteko aukera ere ematen diolako. Semeekin paseo bat emanez, batzuetan bizikletan egiten du banaketa. Beste batzuetan, senarrak edo ilobaren batek ere laguntzen diote. 65 Pulunpe banatzen ditu, udan baten bat gehiago, herrira oporretan itzultzen direnendako. Banatzailea bakarrik ez, abendutik Alkozko alkatea ere bada Cristina.

• PULUNPE BANATZAILEA BAKARRIK EZ, ALKOZKO ALKATEA ERE BAZARA, EZTA?

Anton Iraizotz atera zen azaroko hauteskundeetan, baina obra handi batean sartu berria zen, eta eskatu zigun bi urte hauek beste norbaitek hartzeko. Lehenengo urtean ni izanen naiz alkatea, eta datorrenean, losu Goñi. Hala ere, ardura guztion artean eramatea da gure filosofia. Gurekin batean Miren Latasak eta Jose Mari Itoitzek ere osatzen dute taldea. Orain, konfinamenduan gaudenetik, telefono bidez egiten dugu dena.

• ZER ASMO DUZUE LEGEALDI HONETARAKO?

Martxoaren 7an herriko kontuak eman genituen, eta orduan hasi

behar genuen ditugun proiektu txikiekin. Baina, orduan, alarma egoera ezarri zen. Adibidez, jendea biltzeko lekuren bat bilatu nahi dugu, Alkotzen herriko plazarik ez baitago duela 25 urte bota zutenetik, eta bestetan kale erdian jarri behar izaten dugu karpa. Gainera, herria pixka bat garbitu eta zenbait gauza ere txukundu nahiko genuke. Aurrerago, dirulaguntzek nola funtzionatzen duten ikasten dugunean, ideia gehiago sortuko dira.

• SEMEAK ALKOTZEN HAZTEA, HERRI BATEAN, POLITA IZANEN DA, EZTA?

Hemengo askatasuna oso garrantzitsua da. Honezkero koxkortzen hasiak dira, eta lagunekin ibiltzen dira herrian barna, oso gustura. 11 eta 8 urte

dituzte, eta adin horietako ume franko dago Alkotzen. Gehienak mutilak, dena den; neska gutxi dago (barreak)...

• LARRAINTZARREN IKASTEN DUTE, EUSKARAZKO HAUTUA EGITEA EZ ZEN OHIKOA GARAI BATEAN ULTZAMAN, NOLA IKUSTEN DUZU EGOERA ORAIN?

Gaztea nintzenean, oso gutxik hitz egiten genuen euskaraz Alkotzen. Orain, haurrek, ezagutu bai, badakite euskaraz, baina, egia esan, oso gutxi erabiltzen dute... Helduek, gure gurasoen belaunaldian, bai, euskaraz egiten dute haien artean, baina gure adinekoek eta haurrek ez... Alkotzen oso euskara gutxi entzuten da, pena bat da.

• NON ARI ZARA LANEAN?

22 urtez nire enpresa propioa eraman nuen, haur eskola bat Mutiloan. Gurasoen laguntzarekin jarri nuen, noski. Oso ongi joan zitzaigun, hasieran pribatua zen, baina gerora Arangurengo Udalak erosi zuen. Baina, ondoren, seme txikiekin, eguneroko joan-etorriak, estresa... larri nengibilen, eta bazkideari nire parte saldu nion. Duela urte bat Bel gazta fabrikari, Iraizotzen, hasi nintzen lau orduz, garbiketan, eta oso gustura. Gauez egiten dut lan, gaueko hamarretatik goizeko ordu biak arte, eta horrela oso ongi moldatzen gara etxean. Aldaketa ederra! Baina, oso gustura.



▲ Bi semeekin eta senarrarekin bizi da Cristina Balda Alkotzen



Eskualdeko argazkia

Koronabirusaren eragina eskualdean

Duela bi hilabete ezarri zen alarma egoera eta konfinamenduak gure bizitza hankaz gora jarri du. Baina zein izan da eskualdean izan duen eragina? Irudi orokor bat egiteko asmoz, arlo ezberdinetako hainbat biztanlerekin hitz egin dugu: langileekin, etxez etxe adinekoei arreta ematen diotenekin, turismo arlokoekin, baserritarrek. Bizipenak mila dira, eskualdeak dituen biztanleak adina. Guztiak ezin ditugu jaso, noski, baina behintzat istorio eta bizipen batzuk erreportaje xume honetan biltzen saiatu gara.

MARTA HUARTE

Barne logistikako langilea Maierren

"Martxoaren 17tik itxita dago Maier. Momentuz nomina kobratu dugu, ez dakit hemendik aurrera aldi baterako enplegu erregulazioko espedientean (ERTE) gaudenok langabezia kobratuko dugun edo ez, Espainiako Gobernuak esanen du. Ni bakarrik bizi naiz baina, noski, ekonomikoki estuago nabil orain. Imajinatzen dut hainbat familiatan egoera oso gogorra izanen dela. Pentsatzen dut pixkanaka-pixkanaka itzuliko direla gauzak bere onera... Ez dakigu oraindik noiz hasiko garen berriro, Espainiako Gobernuak jartzen dituen baldintzen arabera izanen

dela uste dut, zenbat langile hasiko diren, ze txandatan, gutxika hasiko garen edo ez... Gure lana, gainera, kontsumoaren arabera da".

"Itxi aurretik maskarak banatu zizkiguten eta gure arteko segurtasun distantzia jarri genuen, baita eskuak maiztasunez garbitzeko xaboa erabili ere. Hori oso ongi kudeatu zuten. Irekitzen dugunean gure lanpostua ere garbitu beharko dugula esan digute, eta ezin izanen ditugu gure tresnak partekatu. Eztula edo sintomarik agertuz gero ere berehalako neurriak hartuko dira. Temperatura

neurtu beharko dugu sartu eta atera baino lehen eta horretarako termometroak izanen omen ditugu sarreretan".



MARTA GASTON (AROSTEGI)

Izarpe Kanpina

"Aste santuko kanpaina galduta dago, eta, gainera, udan ere kanpoko turistek erreserbak bertan behera utzi dituzte. Espero dugu inguruko jendeak etortzeko aukera izatea. Baina ez dakigu ezer. Telebistan entzuten dugu dirulaguntza hau eta bestea jarriko direla martxan, baina gero ez dira iristen. Aldi baterako enplegu erregulazioko espedientearena ere ez dute ordaindu oraindik. Gure langileak erregulazioan ditugu eta gu, bost bazkideak, erregulazio erdiarekin, jardunaldi murriztuarekin".

"Dendan jarraitzen dugu, jende gehiago etortzen da eta gauza gehiago ditugu. Astean behin arrain freskoa ekartzen dugu, eskariak egiteko aukera ematen baitugu. Orain barazkiekin ere gauza bera egiten hasi gara, Hortalizas Etxeberriarekin. Aukera bat da, jende gehiago ezagutzeko eta gure lana ere ezagutzera emateko. Atezko jendea bakarrik ez, Ultzama eta Imozkoa ere etortzen da, egunero jende pila bat". Kanpinean ere, nahiz eta itxita egon, ez dira gelditzen: "Gu lan, lan

eta lan! Kanpina polit-polit jartzeko aprobetxatu dugu, belarra mozteko, gauza batzuk aldatzeko...".





MEGHAN SAPP (OSKOTZ)

Baserri ekologikoa eta Planet Energy enpresaren sortzailea

"Enpresako lanak behera egin duenez denbora gehiago daukat baratzean eta baserrian aritzeko. Aldaketak egiteko aprobetxatzen ari gara. Egoera honetan ikusi dugu jendeak nahiago dituela tokiko produktuak, jasagarriak eta gertukoak, horregatik, baratzea 200 metro handiagoa egitea erabaki dugu. Horrela, aurten, ia 500 metro karratu izanen ditugu. Oilo kopurua ere handitu dugu, 20 ditugu eta 40 izateko aukera dugu. Arrautzak saldu

nahi ditugu. Cederna Garalurrekin eta bestelako erakundeekin elkarlanean ari gara tokiko ekoizleen sare bat ere sortzeko..."

"Zein da arazoa? Inigo eta biok bakarrik gaudela eta lana handia dela, ez baititugu 20 urte... horregatik, urtero, gazteak datoz kanpotik. Ikastera eta guri laguntzera datoz, Woofer deituriko programa baten bitartez. Kezkatuta gaude, Suediatik eta Alemaniatik etorri behar ziren

maiatzean eta ekainean, baina itxoin beharko dugu. Zorionez, Bizkaitik etorritako gazte bat dugu orain, eta beste bat ere etorriko da. Beraz, bi gazte ditugu orain, baina baratzea handitu dugunez, hiru edo lau etortzea gustatuko litzaguke".



CRISTINA ROS (AIZAROTZ)

Gizarte Zerbitzuetako etxez etxeko laguntza zerbitzuko langilea

"Gure pazienteak normalki adineko jendea dira, eta horietako asko oso bakarrik aurkitzen dira egoera honetan. Horiek dira okerren



daramatenak, baina zorionez, osasunez behintzat denak osasuntsu daude. Arreta eskaintzen diegun horiei aurrez telefonoz deitzen diegu jakiteko nola dauden, sintomarik ba ote duten... Gaixotasuna duen norbaitekin esku hartu beharko bagenu prestatuta gaude, ikastaroak eta jaso baititugu lana ongi, segurtasuna bermatuz egiten jakiteko".

"Koronabirusaren egoera hau baino lehen geunden langile kopuru bera

gaude gaur egun, ez da errefortzurik egon: bost langile gara etxez etxeko zerbitzuan, guztiak emakumeak. Egia da lehen tarte libreak izaten genituela eta orain tarte horiek bakartuago daudenei bisita gehiago egiteko aprobetxatzen ari garela, baina bestela lanak antzekoa izaten jarraitzen du. Segurtasun ekipamendu guztiak dauzkagu gure eskuetan: gaixo egon litezkeenekin tratatzeko ekipa osoa, eskularru luzeak, buzoak, betaurreko bereziak, maskarak, plastikozko bata luzeak..."

IOSU ISTURIZ (ERRIPA)

Banatzailea

"Janaria banatzen duen enpresa da gurea. Hasieran mundu guztia janaria erosten hasi zen eta hor erotuta aritu ginen, kasik inolako babesik gabe lan asko egitea tokatu zitzaigun. Baina bat-batean salmentak jaitsi eta dena lasaitu egin zen, enpresatik hasi zitzaizkigun esaten salmenta horiekin ezin zela aurrera egin, murrizketak egin beharra zirela... Orain batzuek astean bi egunetan egiten dute lan, beste batzuek hirutan eta azken batzuek lautan. Asteko beste egunetan langabeziara joaten dira ERTE bidez. Gainera, martxoko langabeziako asteak apirilaren

10ean kobratu behar genituen, baina ez diete denborarik eman eta kobratu gabe daude oraindik, eta maiatzaren 10a arte horrela izanen dela dirudi. Ni ostiraletan joaten naiz langabeziara eta egun bakarra da, baina pentsa badagoela jendea asteko hiru egun etxean dagoena eta soldataren zati hori kobratu ez duena".

"Nire enpresan eta orokorrean banatzaileen artean ikusi dudana da hasieran ez zegoela kasik inolako babes neurririk, asko jota eskularruak eta xaboi horietakoak genituen. Maskarak bosgarren

astean iritsi dira. Lehenago, enpresak zituen maskara apurrekin moldatu gara.





Eskualdeko argazkia

JUANJO IRIBARREN (ELTSO)

Furgodendako saltzailea



"Nik ez dut denda finkorik, furgodendarekin mugitzen naiz herri batetik bestera. 43 urte daramatzat honetan lanean: Ultzamaldean ez ezik, Olloko eta Goñiko bailaretatik eta Larraundik ere pasatzen naiz dendarekin. Oinarritzko produktuak saltzen ditut bertan: elikagaiak soilik, garbitzeko produktuak eta horrelakoak ez ditut izaten".

"Koronabirusaren kontu honekin ikaragarritzko aldaketa egon da: salmentak izugarri igo dira, lehen saltzen nuenaren bikoitza edo saltzen dut orain, eta lan karga handiarekin nabil. Jendeak orain

ez du saltoki handietara joan nahi kutsatzeko arriskuagatik edo, eta lehen herriotatik kanpo lanean aritzen zirenak orain etxean daude. Horregatik igo dira salmentak hainbeste, baina niretzat gehiegi izaten ari da: goizeko 5:30ean etxetik atera eta 22:00etan bueltatzen naiz zenbait egunetan".

"Segurtasun neurriei dagokienez, maskara daramat nik beti, ederki kosta zitzaidan lortzea baina azkenean eskuratu nituen, eta eskularruak ere bai. Horrez gain, jendeari segurtasun tartea mantentzeko eskatzen diot beti".

Hiru aste berrogeialdian

Irantzu Perez ia hiru aste izan da logelatik atera gabe, Covid-19aren sintomekin. Nafarroako Gobernuak zalantzak argitzeko jarritako telefonora deitu zuen eta gripea pasatua zenez, covid-19a izan zitekeela esan zioten, eta inorekin kontakturik ez izateko agindu: "Sentsazioa arraroa da, normalean medikuarekin izaten baikara, aurrez aurre, eta telefonoz izan da dena, zure hitzaz fidatu behar dira. Ez didate probarik egin." Osasun etxetik egin diote jarraipena telefonoz. Sukarrarekin jarraitzen zenez, Iruñean pneumonia zuen jakiteko erradiografia egin zioten, eta ez zenez, etxera berriro.

Azkenean, hiru egunez sintomarik gabe egon ondoren, alta eman zioten apirilaren 15ean. Orain, sukarrarekin hasi da berriro, baina koronabiruseko proban negatiboa eman du. "Test azkarra deitzen duten hori egin didate lehenengo, eta antigorputzik ez nuela ikusi dute, hau da, ez dut kontakturik izan koronabirusarekin. Ondoren, PCR proba egin didate, Covid-19a dudak ikusteko, eta hori ere negatiboa izan da. Proba hasieran egin izan balidate, ez nituzkeen hiru aste logelan pasatuko".



Irantzu Perez ▲



Iñigo Aranbarri,

Berria

Etxez etxeko zerbitzurako lan poltsa zabaldu du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak

Ultzamaldekoko etxeko zerbitzuan aritzeko lan poltsa zabaldu dute Gizarte Zerbitzuek. Interesa dutenek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

Gida baimena eta autoa izatea

Teknikari soziosanitarioaren ziurtagiria, ziurtagiri profesionala edo adineko pertsonekin edo ezgaitasuna dutenekin zaintzan formakuntza edo lan esperientzia izatea

Bi baldintza horiez gain, euskararen ezagutza ere baloratuko dela jakinarazi dute Gizarte Zerbitzuek. Lan poltsan izena emateko 948 30 53 53 telefono zenbakira deitu edo mssb@ultzama.es helbidera bidali beharko da kurrikuluma.



Hiru pertsona hil dira eskualdean koronabirusak eraginda

Lanzko 79 eta 90 urteko bi anaia izan ziren Ultzama aldeko eskualde zabal honetako lehen hildakoak. Martxoaren bukaeran zendu ziren biak, eta hirugarren anaia bat koronabirusak kutsatuta egoera zailean egon bazen ere, onera egin zuen eta arriskutik kanpo ateratzea lortu zuen. Eskualdek hirugarren hildakoa ere martxoaren amaieran zendu zen: Alkozko (Ultzama) 78 urteko gizonetxoa.

Eskualdean dauden positibo kasuei dagokionez, Nafarroako Gobernuak maiatzaren leheneko datu ofizialen arabera hamazazpi pertsona ziren Ultzama aldean positibo eman zutenak. Osasun Etxetik jakinarazi zigutenez azken egunetan herritarrei testak egiten hasi direla eta egin dute kasuek nabarmen gora. Bestalde, isolamenduan guztira 62 pertsona egon direla ere adierazi digute, eta horietatik bat izan ezik beste guztiak honezkero alta jaso dutela.



Nafarroako ospitalea

Tuskegee

2020ko apirilak 12

Alabaman dago Tuskegee, Rosa Parks en herria. Alabaina, beste gertaera batengatik da ezagunagoa. 1932an, AEBetako osasun publikoko mediku talde bat heldu zen bertara esperimendu bat egitera. Sifilisa gaitz arrunt larria zen eta haren kontrako txertoak toxikoak bezain arriskutsuak. Infekzioaren garapen faseak aztertu nahi zituen ikerketak, neurtu nahi zen ea tratamenduak merezi zuten.

Horretarako, 600 gizonetxoa hartu ziren, kontrol-talde gisa erabiliko ziren 201 osasuntsu eta 399 gaixo. Azterketak 1972ra arte iraun zuen, eta azkenik, filtrazio bati esker prentsak publiko egin zuenean, ez zen egon zabortegirik etika medikuari zerion kaka guztia batu, egoki sailkatu eta gordetzeko. Orduan ikusi zen Tuskegeeko giza akuriak promesa faltsuen bidez sartu zituztela proiektuan eta haien baimenik gabe izan zirela artatuak. Prozesu guztian, ez zitzairen penizilinarik eman. Eskandalua ateratzen zenerako, 74 baino ez zeuden bizirik. 40 emakume kutsatu ziren bidean, 19 haur jaio ziren sifilisarekin. Boluntario guztiak ziren afroamerikarrak, soldatepeko laborariak eta analfabetoak.

Asteon, koronabirusaren kontrako txertoaren harira, Jean Paul Mira medikuaren eta Camille Lloch ikerlarien artean Frantziako LCI telebista kateko solasaldiak sutu ditu sareak. «Ez genuke ikerketa bat egin beharko Afrikan? Han ez dute ez musuaurrekorik, ez tratamendurik». «Arrazoi duzu, buruan dugu proiektu paralelo bat Afrikan...». Demba Ba senegaldar futbolariak harrotu du erbia. Samuel Eto'o-k eta Didier Drogba jarri diote bozgorailua: «Afrika ez da laborategi bat. Akuriak bezala erabili nahi gaituzte!».

la ehun urtera, eta orain ere denon on beharraren izenean, logika arrazista eta klasista bera da nagusi. Aldatu duguna Rosa Parksi buruzko iritzia da. Orain hurrei erakusten diegu nor izan zen autobusean zuri bati aulkia ez uztegiatik kartzelan sartu zuten Tuskegeeko emakume ausart hura.



Albisteak / Berriak

AEKren eta IK Aren laguntzarekin egindako atala

Euskara
errazeko
artikulua

Etxealditik Euskaraldira: hasi da atzerakontua

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte Euskaraldiaren bigarren edizioa izanen da, eta, honezkero, prestatzen hasi gara. Apirilaren 20tik maiatzaren 4ra arte Etxealditik Euskaraldira ekimena abian izan da: konfinamenduan ere gure hizkuntza ohiturak aztertzea eta horiek aldatzea izan da proposamena. Ameztitik ere ekimen berri honetara batzeko deialdia luzatu dizuegu, koloredun puntu bat jarri behar baitzen etxeko lehioan, parte hartzen zelaren seinale.

Bizi dugun egoera honetan, Euskaralditik aipatzen dutenez, "elkar ikustea, besarkatzea, ukitzea ia ezinezkoa zaigun honetan, inoiz baino ageriago gelditu zaigu elkarren beharra daukagula: elkarrekin komunikatzeko beharra, hitz egiteko beharra. Horregatik, COVID-19 koronabirusak eragindako alarma egoeran bizitzea tokatu zaigun etxealdian inoiz baino gehiago hitz egiten ari gara elkarrekin, bai zuzenean etxean ditugunekin, eta baita teknologiaren bitartez, lagun, ezagun eta ezezagunekin ere". Galdera ezinbestekoa da, zein hizkuntza erabiltzen

dugu harreman guzti horietan? Euskaraz hitz egin al dezakegu? Hizkuntza ohiturak etxetik aldatzen hastea da Euskaraldiak botatako erronka berria, maiatzaren 4a pasa den arren, zergatik ez ekimena mantendu? Hemen informazio guztia: <https://euskaraldia.eus/etxealdia/>

ALDI ATZIZKIAK denbora tarte bat adierazten du, iraupen bat. Azken egunotan, askotan entzun izan dituzue horrelakoak:

- Euskara + aldi = Euskaraldi. Euskaraz egiteko tarte.
- Itxi + aldi = itxialdi. Zerbait itxita dagoen denbora.
- Berrogei + aldi = berrogeialdi. Berrogei eguneko epea.
- Etxe + aldi = etxealdi. Etxean gauden tarte.



Etxealditik Euskaraldira batu da Cristina Bikuña, Olagueko bizilaguna. ▲

De Rerum Natura

@zaldieroa





**Euskara
errazeko
artikulua**

Etiket ospatu dute Anueko Tomasa Oyarzunen 91. urtebetetzea

91 urte bete zituen pasa zen apirilaren 8an Etsaingo (Anue) Tomasa Oyarzunek. Konfinamendua dela eta urteak egun arraro hauetan bete dituzten gainontzeko herritarrek bezala, etxean ospatu behar izan du urtemuga Oyarzunek. Herritarren eta auzokideen babesik ez zaio falta izan, dena den. Leihotik leihora, nahiz etxepetik leihora, bizilagun bat baino gehiago hurbildu zen Tomasa zoriondu eta zorionak zuri abestera.

Itxialdiak dirauen bitartean herritar asko ari dira beraien urtebetetze egunak etiketik atera ere egin gabe ospatzen, ahal bezain ongi. Irudimena erabiltzea gakoa da halako egoeran: ongi ari gara ikasten egunotan etxean bertan ere ongi pasatzerik eta gauza ezberdinak egiterik badagoela. Ziur konfinamendu egoera arraro honetan urteak bete dituzten horiek inoiz ez dutela ahaztuko 2020ko beraien urtebetetze egun hori...

Bada, urte askoz Pulunpeko lagunak partez ere, Tomasa! Eta urte askoz egunotan urteak bete dituzten gainontzeko guztiei ere! Hori bai, ea hurrengoak kalean ospatzeko aukerarik baduzuen...



Kaletik zoriondu zuten auzokideek Tomasa ▲



Zorionak Tomasa! 91 urte Etsain. ▲

Zorionak!...

Tomasa bezala, egun hauetan zure inguruko norbaitek urteak betetzen baditu, hona hemen zoriontzeko hainbat esapide:

Zorionak!

Urte askotarako! / Urte askoan!

Egun zoragarria opa dizut!

***Izan zaitez zoriontsu
zure urtebetetze egunean.***

Jarraitu beti bezain jator eta zintzo!

***Gure familiaren izenean,
zorion agurrik beroena.***

Goza ezazu egunaz zure etxekoekin.



Konfinamenduan tokiko produktuak eskuratzeko katalogoa Atetzen

Tokiko ekoizle txikiei euren produktuen salmenta egiteko zailtasunak ekarri dizkie konfinamendu egoerak, eta arazo horri momentuko aterabidea emateko asmoz ekimen berria abiatu zuten Atetzen apirilaren hasieran: inguruko baserritarren produktuak eskuratu ahal izateko katalogotxo osatu dute Atezko Udalak eta Cederna Garalurrek, eta herritarren artean zabaldu dute.

Hau da Udalak eta Cederna Garalur Landa Garapenerako elkarteak katalogoarekin batera zabaldu zuten oharra:

»Kaixo Lagun!

Covid19-a dela eta, indarrean den konfinamendu egoerak tokiko produktuak salerostea nabarmen zaildu du. Atezko Udalak eta Cederna Garalurrek bertako elikagaiak herritarren esku jarri nahi ditugu. Horretarako, hementxe bidaltzen dizkizuegu gure eremuko baserritarrek eta ekoizleek dituzten produktuak (moldatuz joango da astero) eta beraien

kontaktuak, produktuak eskuratzeko beraiekin zuzenean harremanetan jartzeko».

Katalogotxoan arrautzak, esnea eta arkumeak eskaini dituzte ekoizleek, eta baratzeiko produktuak eskaintzeko asmoa ere azaldu dute.

Ekoizlea	Telefonoa	Produktua/prezioa	Astero
Jose Angel Azpiroz	645194969	Latsa arkumea: 55€ (hilda) eta 45€ (bizirik) (tamainaren arabera prezioa alda daiteke) Esnea 1l: 3€	05/04/2020
Miguel Angel Oyarzun	649420676	Latsa arkumea: 50€ (tamainaren arabera prezioa alda daiteke) Esnea 1l: 2€	06/04/2020
Artiz Elorza	674260974	Latsa arkumea: 55€ (hilda) (tamainaren arabera prezioa alda daiteke) Arrautzak: 2,5€ dozena	08/04/2020
Jose Mari Ibero	669206472	Oraingoz arrautzak: 2,5€ dozena Aurrerago: belar lehorra, baratzeiko produktuak	05/04/2020

Lehen asteko katalogoa ▲

Abian da Menditarrrak Baztango Rugby Taldearen zozketa

Koronabirusa dela eta bertan behera gelditu da aurtengo Errugbi Gaupasa, eta horrek ekarriko duen galera xamurtzeko asmoz, bertako errugbia bultzatzen laguntzeko beste proposamen batekin dator oraingoan Baztango Menditarrrak Rugby Taldea: zozketa bat prestatu dute.

Boletoak bost eurotan erosi daitezke bi modutan: zuzenean BRTko jokalariekin harremanetan jarriz edo interneten brtmenditarrrak.eus webgunean erosiz. Zein den saria? Bada, bi sari bikainen artean bat hautatzeko aukera izanen du irabazleak: Kubara bi pertsonendako bidaia, edo Husqvarna markako motozerra bat eta desbrozagailu bat. Ekainaren 27an izanen da zozketa. Eskuratu data hori baino lehen zuen boletoak!

BRT
MENDITARRRAK RUGBY TALDEA

5€

Parte hartu eta bi sarien artean bat irabazteko aukera izango dute. Zuzi aukeratzen dute, bidaia edo tresnak.

Participa y podrás ganar uno de estos dos premios. Te elegiremos a través de un sorteo.

Zozketa: 2020.06.27
Ordua: 21:27h

2 pertsonentzako bidaia
CUBA
bi sari 2 pertsona

100% 1.400€

100% 1.400€

Logotipoa
BIK BAT
TALLERES

Miles'ker aurriz

EROSTEA ▶ www.brtmenditarrrak.eus ◀ EROSTEA

Zozketa_BRT_CUBA_2020 ▲

Euskal kulturgintzak apirilaren 21 eta 22an deitutako greba digitalarekin bat egingen du Esan Erran-ek eta Amezti.eus-ek

"Nolakoa litzateke mundua kultur sormenik gabe?" galdera luzatu dute kulturako greba digitala deitu duten eragileek, eta apirilaren 21ean eta 22an galdera horri erantzuteko aukera izan genuen. Covid-19aren itxialdian hamaika online kultur ekimen sortu dira, herritarren konfinamendua errazago egiteko asmoz. Etxean sartuta egon beharreko egunotan kultur kontsumoa ohikoa baino handiagoa izaten ari dela dirudi, baina kulturgintzan dihardutenek euren egoera prekarioa salatu dute beste behin. Horregatik, bi eguneko greba digitala egin zuten 'Ikus gaitzazuen desagertuko gara, entzun gaitzazuen isilduko gara', lelopean.

Komunikabideoi ere bi egunotan kultur edukirik ez partekatzeko dei egin ziguten, eta Esan Erran irriak eta Amezti.eus atariak bat egin genuen deialdiarekin: Egun Ero irratsaioan bi egunotan ez zen entretenimendu atalik izan (kultur edukiak izaten direlako), eta Amezti.eus-era ez genuen eduki berririk igo.

1.000 atxikimendu baino gehiago jaso zituen greba deialdiak, eta Euskal Herriko kultur atari, komunikabide nahiz plataforma askotan izan zuen eragina. Honako hauek izan ziren grebaren helburuak:

1. Gogoeta eta eztabaida soziala eragitea

Konfinamendu egunotan inoiz ez bezala euskal kulturgintzara hurreratu direneigogoeta ariketa proposatzeko: zein balio ematen diogun gure kulturgintzari, zein garrantzia duen gure egunerokoan, zenbat kultura kontsumitzen dugun, kulturgintzaren prekarietateaz eta lan baldintza kaxkarrez ohartzen garen...

2. Premiazko neurriak hartu behar direla exijitzea

COVID-19aren larrialdiak eragin(en) dituen kalteei erantzuteko premiazko neurriakeskatzea Euskal Herri osoko erakunde publikoeiHaiekin batera, epe ertain eta luzerako bestelako proposamenak ere plazaratzea.

3. Euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun guztiontzat elkargunea izango den mahai/bilera/topaketa antolatzeke lanean hastea

Euskal Herri osoko kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun eragile guztioi dei egitea larrialdi egoerak ahalbidetzen digunean mahai/bilera/topaketa... bat gauzatu dezagun euskal kulturgintzaren gabezia eta premia larriei aurre egiteko zer egin proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko.



Zurezko Tallak

—ESKUZ EGINDAKOAK—

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

—MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU]—

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com



Abesbatza erraldoia online osatu nahi du Aralar Musika Eskolak

Goizuetatik Anue arteko herritarrei 'Abesbatza erraldoiaren' ekimenean parte hartzeko dei egin diete Aralar Musika Eskolatik. Abesbatzako ikasleez gain, haien senideek eta beste edozein herritarrek parte hartu dezake. Horretarako 'Baratze bat' abestia kantatuz bideoz grabatu, eta musika eskolakoek jasotako guztiekin muntaia egingen dute abesbatza osatzeko. Egoera txarrak gainditzeko abestea bezalakorik ez dagoela erakustea da helburua.

Apirilaren 25ean bukatu da bideoa bidaltzeko epea; orain, ez baitute data zehatzik eman, bideoa noiz argitaratuko dutenen zain gaude.



Abesbatza erraldoi bat sortuko dute internet bidez Aralar Musika Eskolan ▲

Etxeetatik ospatu dute aurtengo Aberri Eguna Imotzen

Aberri Eguna izan zen igandean, apirilaren 12an. Konfinamenduak eraginda, egoera oso berezian ospatu behar izan dute herritarrek aurtengo zita. Euskal Herria Batera ekimenak deituta, etxeetatik eta balkoietatik ospatu zuten milaka herritarrek igandeko Aberri Eguna. Eta horrela egin zuten Imozko bizilagunek ere. Ondoren, argazkiekin bideo bat osatu dute, amezti.eus-en ikusi daitekeena: <https://amezti.eus/imotz/1586857469530-etxeetatik-ospatu-dute-aurtengo-aberri-eguna-imotzen>

Honela adierazi zuten ekimenaren antolatzaileek zabalduetako deialdian:

MAPA BAT, ABERRI EGUN BEREZIAN

Une gogorretan azaleratzen da herrien txarrena eta onena. Nazio auzolan handi bat martxan da jada. Arriskuaren lehen lerroan borrokan ari direnez harro. Balkoi, leiho eta pantailetatik jariatzen diren mila eta bat laztan, animo, borroka... bizitza keinuez harro. 2020ko Aberri Egunean den bezala azalduko den herri eredugarri bat. Denon mapa bat osatuko dugu, gu guztion milaka argazkirekin. Elkartasun mezuak helaraziko dizkiegu modu batera edo bestera sufritzen ari direnei milaka euskal herritarren aurpegiekin. Milaka testu txikirekin osatutako mapa bat, Historiarako.



Imozko aberri eguna ▲

Konfinamenduko bertso saioak, Nafarroako euskal irratietan

Nafarroako Bertsozale Elkartek antolatuta, Nafarroako zazpi irradi euskaldunetan bertso saioak emititu dira apirilaren bukaeran. Konfinamendua bertsolaritzaz gozatzen jarraitzeko oztopo izaterik ez zuen nahi Bertsozale Elkartek, eta horrela bururatu zitzairen etxeetatik kantatutako eta etxeetatik entzuteko saiook prestatzea. Telefonoz aritu ziren kantari bertsolariak, eta ohiko bertso saioetako ariketak egin zituzten gai jartzaile batek zuzenduta.

Esan Erran irradian apirilaren 23an izan genuen bertso saioaz goatzeko aukera: Eneko Fernandez, Idoia Granizo, Julen Zelaïeta, Patxi Castillo eta Sustrai Colina bertsolariak aritu ziren kantari saio horretan, Ander Aranburu gai jartzaile zutela. Koronabirusak eragindako egoera arraro honi umoretik heltzen saiatu ziren bertsolariak, besteak beste, ordubeteko saioan. Leitzako Karrape Irratian eta Sakanako Beleixe Irratian ere saio bera entzuteko aukera izan zuten.

Ez zenutela Esan Erraneko saioa entzuteko aukerarik izan? Bada, lasai: amezti.eus webgunean duzue entzungai!



Zazpi irradian emititu ziren hiru bertso saioak ▲



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Tia maritxu

Anueko zaporedun gaztak

Betidanik izan du Olagueko Barbazerena etxeko Maria Cilveti Anduezak nekazaritzarekin harremana: txikia zenean ardiak zituzten etxean, eta gazta ere egiten zuten. Posible da umetako lotura horregatik sortu izana gaztategi propioa abiatzeko ideia. Ideia horri tiraka, joan den urtarrilean bukatu du gaztategia martxan jartzeko baimenen prozesu luzea Cilvetik, eta, geroztik, ofizialki martxan da Tia Maritxu gaztategia eta denda Olaguen.

Gaztaren munduarekin esperientzia zabala

"Beti izan dut gaztak egiten hasteko gogoia eta ideia, baina bizitzaren gorabeherak direla eta, proiektua abiatzeko hasierako inbertsio hori egitea kosta egin zait", azaldu digu gaztagileak. Duela lau bat urte, ama izan zenean, egin omen zuten proiektuan bete-betean sartzeko hautua. "Haurrak zaintzeko eszedentzia hartu nuenean etxean gaztak egiten hasi nintzen, eta frogar horien ondoren erabaki nuen saltoa ematea: baimenak eskatze ari eta agiriak betetzeari ekin nion", dio.

Hasieran baimenak lortzeko zailtasunak izan zituela kontatzen digu, eta horrek atzeratu egin zuen gaztategiaren irekiera. "Gainera, kontuan izan behar da seme-alabak edukitzeak ere gauzak polikiago egitea ekartzen duela", gehitzen du. Baimenen esperoan zegoen denbora tarte hori ez zuen alferrik galdu Cilvetik, dena den. Izan ere, azken urteak gaztagintzaren inguruko trebakuntza eta ikastaroak egiteko aprobetxatu zituela azaldu digu.

Horrez gain, lehenagotik gaztaren munduarekin lotutako hainbat lanetan aritzeak ere lagundu dio olaguetarrari bere proiektu propioa sortzerako orduan. Lekunberriko Institutu Laktologikoan aritu zen zenbait urtez, eta han harreman estua zuen artzainekin eta gaztagileekin. "Proiektua garatzerakoan ohartu naiz lehenago egin izan ditudan hainbat lan berriz egitea tokatu zaidala", dio.

Zapore tradizionalak berriagoekin uztartzen

Ardi batzuk baditu Cilvetik, eta horietatik ateratzen duen esnea badarabil gaztak egiteko, baina oraindik bere ekoizpenean erabiltzen duen esnearen zati handi bat beste ekoizle batzuei erosten die.

Haurrak izan nituenean hartu nuen gaztategi proiektu propioa abiatzeko erabakia

Orain arte bereziki ardi gazta ondua egin du, hori baita etxean eta baita bere bailaran betidanik egin izan dena. Baina beste gazta mota batzuk ekoizteko eta frogar berriak egiteko gogoia hasieratik izan du Cilvetik, eta horretan ari da honezkero: gazta urdina, azal garbitukoa, koagulazio laktikoko gazta, igurtzeko gazta freskoa, petit-suisse antzeko meta formadun gazta, espeziaduna...

Betikoa alde batera utzi gabe, baina gauza berriak frogatzen jarraitzea da bere asmoa, eta koronabirusaren itxialdiko garai hauek behi-esnearekin gaztak egiten eta probatzen hasteko ere aprobetxatu nahi omen du. "Jendeak gustu ezberdinak ditu, eta bati ikaragarri gustatzen zaionak beste bati ez dio grazia handiegirik egiten. Horregatik, mota guztietako gaztak eskatzen dizkidate, eta nik mota guztietakoak egiten jarraitzen dut!".



“
Betikoa alde
batera utzi gabe,
baina gazta berriak
egiten frogatzea da
Cilvetiren helburua
”

Bizilagunen partetik erantzun ezin hobia

Tia Maritxu gaztategiak urtarrilean ireki zituen ateak; beraz, hiru hilabete eskaseko ibilbidearekin harrapatu du koronabirusaren krisiak. Ibilbide motz horretan proiektuak jaso duen erantzunaz galdetuta, ordea, oso pozik agertu da Cilveti: “Bereziki herriko bizilagunekin nago pozik, oso ongi erantzuten ari direlako”.

Olaguen ireki duen dendan saltzen du gehien, baina Iruñeko zenbait dendatan ere saltzen dituzte honezkero Tia Maritxuko gaztak, eta horietatik ere erantzun ona jasotzen ari dela azaldu digu Cilvetik. Olagueko dendan, gainera, gazta dastaketak eta ikastaroak antolatzeke gelatxo bat prestatu du,



Gazta urdina egiten ▲

eta aurrera begira ekimen batzuk egiteko asmoa du.

Jakina, koronabirusaren krisiak berari ere eraginen diola argi du Anueko bizilagunak, baina bera ez dago etsitzeko prest: “Enkargu bidez ari naiz gaztak ateratzen momentu honetan, gehiena bailara honetan saltzen dut eta Iruñera ere zertxobait eramaten dut. Arazoa da inbertsioa egina dagoela, mailegua hilero ordaintzen jarraitu beharra dudala, autonomo kuota ere berdin

ordaintzen ari naizela... eta egoera honetan ematen ari diren laguntzak barregarriak direla”. Autonomoek orokorrean egoera zaila bizi badute, are zailago dute koronabirusak proiektua hasi berritan harrapatu dituen horiek. Momentuz, berak ekoiztako esnearekin soilik ari da gaztak egiten, eta espero du uda aldera egoerak zertxobait hobera egin eta dastaketak eta ikastaroak antolatu ahal izatea.

▼ Aritzuko bide zaharretik ardiak igotzen



▲ Urtarriletik dago martxan Tia Maritxu gaztategia eta denda



Jaz...



Arwiten...





Gorabeherak

Gorabeherak, euskarazko telesail berritzailea, amezti.eus-en

Ttáp aldizkari digitalak ekoiztutako websail laburra da Gorabeherak, eta lehenengo bi atalak amezti.eus-en ikusgai daude. Websaila esaten diogu, ez baita telebistan ikusiko, euskarazko hedabide digitaletan baizik. Bertikalean grabatuta eta bost minutuko iraupenarekin, mugikorrean ikusteko telesail berritzailea izanen da, eta umorez betetakoa. Hildako pertsonaia ezagunak zerura edo infernura eramaneen ditu igogailuan Ramon igogailuzain xelebreak.

Ttáp aldizkari digitalean estreinatu ondoren, Tokikomeko webguneetan estreinatu da Gorabeherak websail laburra, baita gurean ere, amezti.eus-en.

• UMOREZ BETERIKOA

Atal bakoitzean, hildako pertsonaia ezagunak zerura edo infernura eramango ditu igogailuan Ramon igogailuzainak. Pertsonaia ospetsuen azalean Nerea Arriola dugu, eta Kepa Errasti Ramon igogailuzainarenean. "Hori da 'gantxoá' edo amua, pertsonaia zerura edo infernura joanen den ezagutzea", azaldu digu Kepa Errasti aktoreak.

Ttáp aldizkari digitalaren enkarguz sortu zuen Errastik Gorabeherak: "Igogailuaren ideiatik tiraka segituan etorri zitzaidan zerura edo infernura doan igogailuarena. Atal bakoitzean pertsonaia ezberdinak agertzeko eta gai ezberdinak lantzeko aukera ematen du. Mikel Laboaren atalean, adibidez, bere abestiekin hitz jokoak egin genituen".

• BERRITZAILEA

Sakelako telefonoan ikusteko egin da Gorabeherak, bost minutuko iraupenarekin eta jarraian, gelditu gabe, grabatutako plano sekuentzian. "Badu bere zailtasuna, planoá, etenik gabe, hasieratik bukaeraraino grabatu behar delako. Baina, era berean, freskotasan oso polita ematen dio" azaldu digu Errastik.

"Asko kostatu zitzaigun grabatzea Mikel Laboaren atala. Nereari aldi bakoitzean modu ezberdinean ateratzen zitzaizkion Mikel Laboaren Lekeitioaren imitazioak, barreari euste hori gogorra baino polita ere izan zen, oso ondo pasatu genuen".

Apusturik handiena, dena den, karakterizazioaren alde egin dutena izan da: "Bi orduko makillaje saioak izan ditu Nereak pertsonaia bakoitzarekin, hau da, sekulako lana egin dute. Eta, noski, hori ere emaitzan ikusi da. Horregatik, irudian oso ikonikoak diren pertsonaiak aukeratu ditugu, oso identifikagarriak. Mikel Laboarena ongi egina iruditzen bazaizue, ikusiko dituzue etorriko direnak... ". Momentuz, bi lehenengoak daude ikusgai amezti.eus -en. Mikel Laboaren ondoren, Marilyn Monroe: "Marilyn Monroe baliatu nahi izan genuen edertasun kanonei buruz hitz egiteko. Orain arte grabatu ditugun 5 atalak egun bakar batean



Nerea Arriola aktorea, Marilyn Monroen azalean. Bera jarriko da pertsonaia famatuaren zalean atal guztietan.



Mikel Laboa izan da igogailuan sartzen lehena. ▲

grabatu genituen, eta uste dut polita izan dela pertsonaia bakoitzarekin Ramonek, igogailuko langileak, harreman ezberdina izatea ". Igogailuan sartuko diren hurrengoak ikusteko, adi amezti.eus- en, zerura ala infernura joanen dira?

“ barreari euste hori gogorra baino polita ere izan zen, oso ondo pasatu genuen grabazioan ”



Arroz esnea

Ana Alberro Goñiren arroz esnea

Konfinamendua garai bikaina da sukaldean errezeta berriak prestatzen ikasteko. Horregatik eskatu diogu Eltzaburun bizi den Ana Alberro Goñi aizaroztarrari sukaldeko plater goxoren bat prestatzen erakusteko. Bere amarengandik jasotako errezeta bat aukeratu du Alberrok: arroz esnea. Gazitik dezente duten egun hauetan, eskertuko dugu gozo pixka bat... bada, goazen sukaldera!

OSAGIAK

Litro bat esne

6 koilarakada azukre

6 koilarakada arroz

Kanela zati bat

Limoï azal puska bat

• PAUSOAK:

1) Esnea sutan egosten jarriko dugu kanelarekin, marratutako limoi azal pusketarekin eta azukrearekin

2) Bitartean, arroza uretan edukiko dugu pixka bat garbitzeko

3) Esnea irakiten hasten denean, arrozari ura kendu eta arroza esneari gehituko diogu

4) Esnea arrozarekin irakiten edukiko dugu 45 bat minutuz

5) Behin dena egosita dagoela, ontzi batera aterako dugu arroz esnea, eta hozten utziko dugu (Anaren gomendioa: hozkailuan sartu gabe, kanpoan uztea hozten. Horrela, are goxoago geldituko zaigu platera!)

6) Lodiegi gelditu dela iruditzen bazaigu, oraindik esne pixka bat gehiago bota geniezaioke, gure gustura

7) Eta listo... erraza eta goxoa, ezta?

▼ Arroz esnea gainetik kanela hautsarekin



▲ Ana Alberro sukaldean



Kolera Imotzen

• KOLERA GAITZAZ HITZ PARE BAT.

Garai hartan ikusi eta sufritu egiten zuten kolera. Baina gauza ziurrik ez zekiten. Ez zekiten zer zen eta nola hedatzen zen. Idearik ez zuten, edo hobeki esan, zuten ustea oso okerra zen. Usteltzen ari ziren bizidunak edo ur geldiak, aintzirak eta holakoak, ustez botatzen zuten hats galgarriari miasma esaten zioten. Eta miasma honek hedatzen omen zituen izurriteak. Miasma hori ez zen deus, jende ikasien eta ez ikasien iduri bat baizik. Deus ez eta miasma omen gaitzaren iturburu! (1)

Koleraz kutsatutakoek, beherakoa, sabeleko min gogorra eta kontrakzioak izaten zituzten. Eta botagalea: botaka atertu gabe. Alde batetik beherakoa eta bestetik goragalea, egun gutxi horietako asko eta asko hil egiten zen deshidratazioz. Beste batzuk sendatzen ziren, baina ez emandako erremedioekin.

Zerabiltzaten erremedioek ez zuten jaretako balio.

Gaixotasuna **Vibrio cholerae** bakterioak sortzen du eta honek eguraldi beroa behar izaten du bizitzeko, **25 gradutatik 34 gradutarainokoa**, beraz, udan eta udazkenean zabaltzen da. Gure lurraldean, negua iristean bukatzen da gaitza, baina hori ere ez zekiten. Bakterio hori hesteetan bizi izaten da eta gorotzean botatzen da eta uretara iristen bada, kutsatuak gelditzen dira. Ur kutsatua edanez edo gorotza edo botagalea arropetara eta eskuetara eraman eta edangarri edo jangarri zerbait ukituz gero, barratzen da kutsua. Baina hori ere ez zekiten garai hartan eta itsumustuka ibiltzen ziren: herriak bakartu, erremedio esdeusak emanez edo odoleria kaltegarriak eginez. Ejertzitoea ere dantzan jartzen zuten, manatu aginduak betearazten. Batez ere kutsatutako herriak konfinatzen zituzten.

• 1855EKO PANDEMIA IMOTZEN.

Epidemia baino gehiago izan zen. 1855eko kolera pandemia izan zen, India aldean sortutakoa eta ia mundu guzian hedatu zena. Nafarroako Erriberan uztailaren hasieran barratu zen eta iparraldera ikaragarritzko ziztuan hedatu zen.

Izugarrizko izurrite horrek hedatua zuen izua ez zen makala izan. Gurera ere iritsi zen eta Imotz aldean koleraz hildako asko izan zen. Etxaleku eta Urritzan izan zen izurrite hau. Eta gutxiago Erason.

Urritzan sortu zen lehenik kolera, aurki abuztuaren 21ean hil zen lehenbizikoa eta hurrengo biak 22an eta 29an. Eta honetan geldialdi bat izan zen, irailaren 11 artio. Honetan **Azpikoetxeko** nagusia, Pedro Jose Aldaz, hil zen. Eta hurrengoak ia errenkadan, bat bestearen atzetik irailaren 29a artio. Herri gehiena kutsatu zen, eta horietatik hil zirenak, 16 izan ziren. Etxe batean, Juan Martin Aizcorbe nagusia bera eta bere bi haur eraman zituen gaitzak.

Ezkondutako 10 lagun eta gainerakoak ezkongabeak, hiru haur tartean.

Dirudienek, kutsatze kabia bertako iturrian zuten, **Auzetxe** ondoan den iturrian. Hori dirudi, beste iturriren bat ez bazuten behintzat.

Irailaren 16an eta 19an Erason azaldu zen. Zorionez, bi hildako besterik ez ziren izan, **Goikoetxeko** nagusia, zahartua ordurako, eta 27 urtetako Juan Martin laben, etxalekuarra, Erason bizi zena. Mutil beharbada **Goikoetxean** bertan?



Urritzako Auzetxea. Honen azpiko aldean bada iturria, garai batean erabiltzen zutena. Bertatik barratuko zen gaitza.

Eta ondoren, Etxalekun ikusiko dugu. Urriaren 9an izanen zen lehen heriotza. Beraz, Juan Martin laben, **Apezeneko** semea izatea tarteko, zailsko iruditzen zaigu. Nolanahi dela, kontuan izan behar da Etxalekuko iturria Migelenea-Apezenea tartetik, lurpetik pasatzen dela eta Etxalekuko jende etaazienda guziaren edate iturri bakarra zela garai hartan. Iturri hori izan zen gaitzaren hedatzailea.

Etxalekun kutsatu guzietatik 16 lagun hil ziren, 8 ezkondu, hiru alargun eta 5 ezkongabe, horietako bat haurra, **Iturriko** etxekoa.

Etxe hauetan izan ziren hilak: Dorrotoan, Migelenean, Mokorroan, Iturrikoan, Marijoanean eta Mikeltxenean. Azken honetan senar-emazteak. Gainerakoak maistarrak ziren eta ez da erraz jakitea zein etxetan bizi ziren. Azkena, Micaela Jerez Godaracena izan zen (Errozko Jerezarrak Etxalekun dute sortzea)

Hiltzeko orduan, oliadurak eman behar eta askotan komuniorik ezin hartua izaten zuten eriak, botaka eta botaka, sosegurik hartu ezinik hiltzen baitziren.

• IZURRITEAREN BUKAERA

Urri ondarrean bukatu zen izurritea. Izua, herri bakartzeak, sospetxak ... bukatu ziren azkenean. Eta **Te Deunak** izan ziren, batez ere latz sufritu zuten herrietan, Jainkoari eskerrak emateko bukatu zela eta. Bai, bukatu zen, baina 1865 eta 1885. urteetan joko zuen berriz ere izurriak. 1885. urtekoa Oskotzen izanen zen eta horren historia kontatu genuen aldizkari honetan bertan orain urte batzuk

• BESTE ZERTZELADA BATZUK

Urritzan, beste toki askotan bezala, kanposantua elizaren kontra zen eta bertan ez ehorztea erabaki zuten. Hala, **Txabaldoki** dermioan egin zuten koleraz hildakoak lurperatzeko tokia. Ez zuten deus gehiagotarako ibili. Eta Etxalekun, kanposantua konpontzeko eta handitzeko lanak egin behar izan zituzten.

Urritzako **Auzetxeko** Benita Etxarrik hala kontu zigun:

“Egun batean, hiru zulo egin zituzten, azkeneko hiruak sartzeko, eta zuloa egiten ari zenetako batek esan omen zuen:

-Beste bat egin behar diagu. Izanen duk eta nork beteko duen -eta lau zulo egin zituzten badaezpada.

-Hurrengo hila, laugarren zuloa egitea aipatu zuena izan zen.

Erason, berriz, geroztik, abuztuaren 16an beti festa egin izan dute, izurritea kalte gutxirekin pasatu zutela-eta egin zuten promesagatik. Egun hori San Roque eguna izaten da. Historiak dioenez, Italian izurritea izan zen garai batean San Roque hildakoen ehorzketan ibili omen zen. Jendea hilengana hurbiltzeko ere beldur eta honek berak zuloa egin eta ehortzen omen zituen.

OHARRA: *Gure hurbilean 1855. urtean, Itsason ere ikusi izan ditugu hilak, uztailean eta irailean. Zazpi izan ziren hilak. Eta Udabe-Bermendin, berriz, irailean eta urrian, hamabost. Gaitzaren sorburua non izan zitekeen antzemateko iturriak ikustea bezalakorik ez da. Itsason Iturritzarra deitzen dutena izanen zen, Labaderoaren ondoan, eta Udabe eta Beramendikoek bi herrien artean dute, Udabeko bentako azpialdean, Iturrun dermioan. Iturri honek ere, nire ustean, ikusteko handia izan du Udabe eta Beramendin tifus aldiak izan direnetan. Hemen adina tifus nik ez dut inon sumatu.*

 **Txurdan**



▲ Eraso, gaineko aldetik ikusita.



NAHI GABE BEZALA

Nahi gabe bezala, eskura etorri zaidana, eta koronabirusaren izurrite honetan gu zaintzen gaituzten mediku eta erizainak gogoan:

“Peste-denboran dagolaik kutsus beterik airea, sendoena ere daiteke kutsa (...)

Eta zer izain da leku peligrrosoenean, ala nola kuarto ertxi batean agos ago urbil daudelaik kutsatueki?”

Hori idatzi zuen, orain 200 urte baino gehiago Joaquin Lizarraga Iragi, Elkanoko apez (1748-1835) izan zenak.

J. Lizarraga Iragi, Elkanon, **Migelenan**, jaio zen, 1748. urtean. Juan Tomas eta Franciscaren ume zaharrena. Juan Tomas etxeko semea eta Francisca Iragi, berriz, Egozkueko **Gillentroneko** alaba.

Gazterik, 12 urtetan Iruñera joan zen ikastera, Jesuitetara, eta gero, hemengo aldia egin ondoren, Valladolida, Villagarcia de Campos herriko konbentura, nobiziatura. Bertan irakasle lanetan ere aritu zen, Espainiatik jesuitak bota zituzten artio, 1767. urtean.

Gehienak atzerrira joan ziren, baina Joaquin, sortetxera itzuli, bera ama alargunaren altzora, eta apez ikasketak egitea erabaki zuen. Eta Elkanon apez izan zen 62 urtez 1773-1835 artean.

Elkanoren obra ikaragarriaren zatiak hainbat aztertzaileek landu dituzte: Luis Luciano Bonaparte printzeak, Luis Villasantek, Angel Irigaraiek eta beste batzuk. Aipatu gabe ezin utzi lan horretan aritu diren gure alderdiko bi jakintsu: **Aita Polikarpo Iraizozkoa eta Don Juan Apezetxea, Orokietako parrokoa**. Azken honek bere biografia idatzi du eta bere lanaren zati baten azterketa bikaina ere egin eta publikatu du.

Beste kontu pare bat

ESPAINIAKO KOLERA PANDEMIAK
(Espainian 11.000.000 lagun bizi ziren gutxi gora-behera)

Urtea	Espainian Hilak
1835	300.000
1855	236.000
1866	120.000
1885	120.000

1855ekoan pentsatzen da biztanle guzien %3-4 hil zirela. Nafarroako azterketa osorik, nik dakidala, ez da egin. Imotzen, %3 izan ziren hildakoak.

Etalekuko herria Zarranztik ikusita; kolera izan zen 1855. urtean.



Hiztegia

Dilista: Lenteja

Izurritea: pestea, epidemia.

Botagalea. Hemen botakalea esaten dugu.

Gorotza: kaka.

Itsumustuka: a ciegas.

Bakartu: aislar.

Odoleria: sangriari esaten diogu guk. Beste toki batzuetan odoluria erabiltzen dute baina beste esnahi batekin.

Aurki: probablemente (Hemen, beti esanahi honekin ibili izan da)

Errenkada: bat bestearen atzean, segidan.

Urria: Hemen septiembriari esaten diogu, baina batuan octubre da.

Aldizkaria: revista.

Zertzelada: xehetasuna, detalle.

Ehortzi: lurperatu (Ehortzi hemen ere erabiltzen da, edo erabili izan da)

Dermioa: termino.

Oharra: Nota.

(1) Beste teoria bat ere bazuten: gaitzaren germenak edo hazitxoak eriek barratzen zituztela hatsa botatzean, eta horrela kutsatzen zela hurbileko jendea.



Joxe Miel Beraza Otxandorena hil da

Basaburua eta Imotz aldean aski ezaguna; baita urrutiago ere!

Orain joan zaigu, hainbeste urte Tafallako mojen erresidentzian izan ondoren. Joan den 23an hil zen, gure Joxe Miel. 84 urte beteko zituen datorren maiatzaren 19an, 1936an sortu baitzen Arrarrasko **Iriarte**an, gerra aitzinean. Ondoren familia guzia Etxalekura aldatu zen Joxe Miel ezik, gazte denbora guzian **Otseitteko** bordan hazia baita bere izeba Alberta Otxandorena Belarrarekin.

Majiña bat joan-etorri egin zuen Etxalekuko **Etxanditik** lehenik eta gero **Etxeberritik** Basaburua aldera. Basaburuko bidea hartu eta jopel! **-Badaíela Joxe Miel!** Ez, ez zuen egonarririk!

Basaburuko herri guziak ibili zituen. Baina, batez ere Arrarats, Igoa eta Gartzarona joan behar izaten zuen. Eta zer esanik ez, Orokietara. Han izaten zuen bere bigarren bizitza. Gehienbat **Antsoneko** borda, Maria Vitoriaren etxea.

Buru argiko gizona eta zurrut egin gabe zegoenean umila. Eta kaskaturik zebilenean, berri, ausarta. Eta esaera zorrotzak botatzen zituen. Txingiak izaten ziren askotan bere ateraldiak.

Orokietan izaten zenean, noizbehinka lanean ere aritzen zen zerbait, Mariarentzat eta beste batzuentzat. Lana zela eta, gartzarondar batek honako pasadizo hau kontatzen zuen eta kontatzen du:

"Eondu yun lokitako apezan itxan epaitze txikitzen, eurre txikitzen, eta ekartzen omen zioten zerbitzerik baso'at ure eta bi saar.

Ta hurrengo jaien, ostian kaskarra harpatu ta mezaa, -hue ez



Arrarasko Otseitteko borda. Hemen bizitu zen Joxe Miel bere gazte denboran ▲

balen'bazion kaskartuik ez yun mezaa yoaten-. Gartzauna meza yoan ta Apeza ai'yun sermona itten, ta "Jaionkoak in zun gizona..." ixildu in yun pixkitto'at hola, ta ordun Beaxak korutik.

-Bai, hiri eurrek hausteko!

Ordun, apeza bueltatu eta,

-Atia'zazte gizon hoi hemendik!

Eta ordun Beaxak, oihuke.

-Atia'zazte, ez! Nione atiako niok!

Ta atiaieran, ataritik hala esan zioten, aldaria aurrez aurre beire:

-Aatik hautsiko'ttit geigo hiri eurrek!"

Euskaldun hutsa zen. Erderaz ere bazekien, baina nekez entzuten zenion kanpoko hizkuntza horretan. Euskalduna zen Joxe Miel, euskaldun izateaz konplejurik ez zuena. Euskaldun peto-peto! Eta baita behar ere!

Aspaldian guregandik urruti joan hintzen, baina ez haugu atzendu, eta zail izanen duk hitaz atzentzea, Joxe Miel!

Seguru negok, ardo ozpindu eta minduak alde batera utzi eta ardo frexkotik ari haizela. Seguru negok, Joxe Miel! On deikela!



Txurdan

Hiztegia

Gaur lau hitz ekarri ditugu, hemengoak ere badirenak, eta gazteenek ikasi ez dituztenak. Gogoan hartzekoak dira. Gogoan hartu eta ibili, jakina.

Majiña: Euskara idatzian makina jarri behar izaten da. Hala ere, nik ez dut hala egin.

Egonarria: "pazientzia" antzeko birtutea: Egonarri txarrekoa, egonarri haundikoa....

Txingia: Nahiko arrotz gelditzen ari zaigun hitz ederra, orain zenbaitzuri txinparta gehiago gustatuagatik. Gure-gurea dugu.

Haatik! (Aatik): Hemen, "(hau eta hau esan didak) baina nik orain ondorioz....", (Egonarri eta haatik hitzak erdarara itzultzea ez zait batera erraza gertatzen. Hiztegitan itzulpen zuzen eta zehatzik behintzat ez dut opatu)

OHARRA:

Orokietako apeza eta garai hartan Gartzarongoa ere bai, Don Fermin Urritza Mugertza izaten zen.

Urtebetetxeak Urtebetetxeak



Zorionak Naroa!



Zorionak Aimar!



Zorionak Urho!



Zorionak Tomasa! 91



Zorionak Inaxio!



Inaxioren pankarta!



Zorionduzure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Auzolana eta elkar zaintzea, koronabirusaren alde positiboa

Covid-19 gaixotasunak eragindako kalteak eta egoera zailak soberan ezagutzen ditugu, baina, ohartu al gara egoera zailenetan jende askok beraien onena ematen dutela? Herri askotan sortu dira elkar zaintzeko eta babesteko sare indartsuak, auzolanean eta herritarren borondatean oinarrituta. Gure eskualdean ere bada horrelakorik: itxialdiarekin batera, boluntarioen sarea martxan jarri zuen Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.

Zer den boluntario sarea? Bada, etxetik atera ezin duten edo komeni ez zaien herritar horiei, egoera zaurgarrienean aurkitzen direnei (adineko jendea, gaixotasunak dituztenak, berrogeialdian sartuta daudenak, nahiz beste arrazoiren bategatik etxetik irten ezin dutenak), laguntza emateko sortu den boluntario taldea da. Edozein herritar horrelako egoera batean aurkitzen bada, Gizarte Zerbitzuetara deitu eta boluntario batek laguntza emanen die: dela erosketak egiteko eta etxera eramateko edo dela beste edozein gauzetarako.

Momentuz, eskualdeko 19 pertsona daude boluntario sare horretan. Esanguratsua da boluntario horietatik gehienak emakumeak direla: 15. Gizarte Zerbitzuetatik jakinarazi digutenez, herri ezberdinetako jendea dago poltsa horretan, eta momentuz sarea erabiltzeko beharrik izan ez badute



▲ Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete laguntza behar dutenak. Iturria-rutxuloko Hitza

ere, horrelako poltsa edukitzeak lasaitasun eta segurtasun handia ematen die. "Osasun etxetik Aste Santuan ere adi egon ginen beharren bat sortzen bazen erantzun ahal izateko, gure telefonoak eskura izan zituzten osasun etxeko guardiako medikuek. Baina momentuz behintzat ez dugu sarearekin inolako lanik egin behar izan".

• HERRIETAKO SARE INFORMALEN GARRANTZIA

Gure eskualdea herri txiki askoz osatua dela kontuan izanda, jakin badakigu Gizarte Zerbitzuetako laguntza sare formal horrez gain herriz herri elkartasun eta laguntza sare informalak ere badaudela, eta posible da horiei esker oraindik inork Gizarte Zerbitzuetara jotzeko beharra eduki behar ez izana.

Udalerrietako kolaboratzaileek ere behin baino gehiagotan aipatu digute Esan Erranen auzokideen arteko laguntza sare horiek egon badaudela, eta betidanik mantendu diren harreman horiek egoera zail honetan gainera indartu egin direla. Poztekoa da, behintzat, auzokideen eta herritarren arteko harreman estu horiek gaur egun oraindik zenbait tokitan bizirauten dutela.

Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetako etxez etxeko zerbitzua ematen duten langileek ere lanean jarraitzen dute. Horiek ere lan handia egiten ari dira momentu hauetan behar gehien duten horiei lagundu eta itxialdia xamurrago egiten.

“ Eskualdeko 19 pertsona daude momentuz boluntario sarean: 15 emakume eta 4 gizon



▲ 49 lagunek eman dute boluntario poltsan izena

Mendi bizikletaz, eta zixtu bizian podiumerantz

Mendiko bizikletan hasi zen 2016an Ander Biurrarena Beloki, eta hiru urte geroago, pasa den urtean, lehenengoa izan zen Caja Rural eta Euskadiko Open txapelketetan. Urtean lehiatzen duten beste bi lasterketetan, Diario de Navarra Openean eta Superprestigion, laugarrena eta bosgarrena. Emaiza oso onak denbora gutxian, beraz, pozik dago 16 urteko kadete gaztea. Ander Biurrarena Udabekoa da, Maisterrena etxekoa, eta astero entrenatzen du bere taldearekin, Ororbiako Saltoki txirrindularitza klubarekin.

Nola hasi zinen mendiko txirrindularitzan?

Duela lau urte hasi nintzen. Nire lehengusuek errepideko txirrindularitzan ibiltzen ziren eta lasterketetara joaten nintzen haiek ikustera, eta gustatu zitzaidan. Baina nik ez neukan errepideko bizikletarik, bai ordea mendikoa, eta mendian barna ibiltzen hasi nintzen. Hasieran nire kabuz hasi nintzen eta gerora talde batean eman nuen izena, Ororbia ondoan dagoen Saltoki taldean. Talde handia da, ehun bat izanen gara gutxi gorabehera.

Txapelketa askotan parte hartzen al duzue?

Normalean, urtean, lau txapelketa egiten ditugu: Caja Ruralekoa, Open Diario de Navarra, Superprestigio-estatu mailako txapelketa- eta Euskadiko Opena. Pasa den urtean Euskadiko Opena eta Open Diario de Navarra txapelketan lehenengoa izan nintzen, eta Caja Ruralekoan laugarrena. Superprestigion gaizki, lehiakideak oso onak direlako.

Pozik izanen zara, ezta? 3 urte ez dira asko eta begira ze emaitzak!

Bai, oso pozik nago egindudanarekin, emaitza oso onak izan dira, bai.

Nola entrenatzen zarete?

Larunbatetan elkartzen gara guztiok batera entrenatzeko. 15 bat pertsonak osatutako taldeak egiten ditugu eta talde bakoitzeko hiru monitore datoz gurekin. Haiek ibilbideak antolatzen dituzte eta horiek egiten ditugu.

Oraingo egoeran, ezin duzue, ezta?

Ez, bakarrik entrenatzen naiz etxean, rodilloarekin, eta gimnasia egiten. Lasterketak bertan behera gelditu dira heldu den urtera arte, eta ez dakigu oraindik noiz itzuliko garen entrenamenduetara.



Duela lau urte hasi zen mendiko bizikletan Ander Biurrarena Beloki.



Lurraren

Zientzia gizakiaren mesederako, mesedez!

415. edo 416. urteko martxoan izan zen, zalantzak daude urteari dagokionez. Alejandrian Hipatia emakume zientzialaria eraila izan zen. Kristautasunera bihurtzea ukatu zuen bere ideia zientifikoei jarraiki eta horrek, heriotzera kondenatu zuen. Zientziarentzat garai ilunak izango ziren hurrengo urteak.

1543. urtea: Copernicok Teoria heliozentrikoa, Lurra bere ardatzaren inguruan eta Eguzkiaren inguruan dabilela alegia, aurkeztu zuen, ordura arte kontrakoa sinesten baitzen. Urte batzuk beranduago, Eliza Katolikoak bere obrak irakurtzea debekatu zuen eta ia mende bat beranduago, Inkisizioak Galileo Galilei Copernicoren lana ez babestera behartu zuen heriotza eta tortura mehatxupean.

Hipatia, Copernico, Galileo, Kepler, Descartes,... zientzialari ugari

bere ideiangatik epaituak edota zigortuak izan dira historian zehar. Egun, ez dituzte sutan erretzera kondenatzen, baina sarri, bere lanak baldintzatu edota isilpean gordetzen dira. Bestetan, besterik gabe, entzungor egiten diete mundua beste ezeren gainetik interes ekonomikoen menpe jartzen dituzten agintariek. Eta hori da hain zuzen, hilabete honetarako hizpide hartu nahi izan dudana.


Hogeita hamar urte baino gehiago gehiago pasa dira 1987. urtean "Gure etorkizun komuna" edo "Brutland txostena" bezala ezagutzen dena argitara eman zenetik. Bertan, egun oraindik larriagoa den ingurumen krisia aipatzen zen eta honi aurre egiteko ezinbestekoa zen "garapen jasangarria" proposatu zuten, beranduago hitz hauek modan jarri eta hutsak bihurtu

arte erabili direnak.

Beste hainbeste urte pasa dira zientzialariek klima aldaketaz eta honen ondorioez ohartarazi digutenetik, baina agendan aurrera egitea lortu badu ere, bestelako lehentasunen aurrean beti bigarren maila batean geratzen dira.

Ez, ni ez naiz teknokraziaren babeslea. Baina mesedez, zientzia eta ikerketa aske baten alde egin dezagun, entzun eta zabaldu alor ezberdinetan egiten dituen ekarpenak eta aintzat hartu kudeaketa egiteko garaian. Eta ez ahaztu, urteak direla zientzialariek ohartarazi zigutenetik bioaniztasunaren mantentzea pandemia zein izurriteei aurre egiteko botikarik onena dela, beharra dugu eta!

 **Lurra**





Konfinamendurako

Kulturaz gozatzen jarrai ezazu etxetik atera gabe!

Konfinamendu garaian zuen etxeetako atariraino bertaraino heltzen saiatzen gara liburutegitik. Gu ezin bagara mundura atera mundua ekarriko dugu gurera. Eta nola? Berrogeialdia hasi zenetik indartu ditugu liburutegiaren bloga eta sare sozialak etxean gozatzeko gomendio eta baliabide asko eskainiz. Twitter eta facebook erabiltzen ez badituzue udaleko webgunean ere aurkituko dituzue estekak. Eta gaur eginen dugu hemen, Pulunpen, zuekin konpartitzeko hautaketa bat.

LIBURUAK DOAN HAINBAT ARGITALETXERI ESKER

Asko dira irakurleen eskura doako irakurgaiak jarri dituzten argitaletxeak. Adibidez, euskarazko liburuei dagokienez, **Susa argitaletxeak** (www.susa-literatura.eus) eskaintzen digu (eta ez bakarrik orain, berrogeialdi honetan, baita edozein momentutan ere) bere liburuak "on line" irakurtzeko eta deskargatzeko aukera. **Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Iñigo Astiz, Arantxa Urretabizkaia...** Euskal idazle zerrenda luze bat haien liburuak doanik etxera eramateko.

Booktegi-n (www.booktegi.eus) ere, euskarazko (eta ingeleseko batzuk ere bai) liburuak, erreportajeak, audioak, poesia... aurkituko dituzue eta edozein motatakoak: helduendako, gazte literatura, haurrendako liburuak.

ANAGRAMAK (www.anagrama-ed.es) **Mariana Enríquez, Juan Pablo Villalobos, Gonzalo Torné, Alejandro Zambra eta Marta Sanzen** bost liburu oparitzen dizkigu, baita azken honen, Marta Sanzen ipuin bat ere.

ERRATA NATURAEK (www.erratanaturae.com) distopiak, pentsamendu kritikoa, nobela beltza, umeekin irakurtzeko

liburuak, umorezko liburuak, telebistari eta zinemari buruzko liburuak eskaintzen ditu.

Karras Comics-en (www.karrascomics.com) PDF formatuan deskarga daitezkeen komiki ugari aurkituko dituzu. Eta **Astiberri** (www.astiberri.com) Bilboko argitaletxeak, eskaintzen digu bere **egile**en komiki batzuk irakurtzeko aukera eta beste ekimen gehiago, hala nola "Astiberri en pijama".

Bestalde, eta gertuago joanez, ejem, ejem, nire partetik zuekin konpartitu nahi dut **nik neuk konfinamenduari buruz idatzi dud**an ipuin bat: "Cuando todo esto acabe" du izenburua, Diario de Noticias egunkariak kaleratu zuen eguneroko ataletan eta Harper Collins argitaletxeak libreki deskargatzeko prestatu du. Esteka

honetan duzue deskargatzeko aukera: PDF batean (Pedro Oses nafar artistak egindako ilustrazioekin), ebook batean irakurtzeko, audioliburuan... www.patxiirurzun.com



Cuando todo esto acabe. Patxi Irurtzun ▲



Zinemara, musika zuzenean entzutera edo antzerkira zuen sofatik

Zuzeneko musika edo antzerkia gelditu egin dira koronabirusaren ondorioz, baina ugariak dira, beste modu batera, kontzertuez eta jaialdiez gozaten jarraitzea ahalbidetzen duten ekimenak. Adibidez, **BERRIA ARETOan** (<https://www.berria.eus/berriatb/berria-aretoa>) hainbat proposamen eskaintzen dizkigute egunero, besteak beste, euskal musikari batzuenak: **Anari, Eñaut Elorrieta, Gontzal Mendibil, Musergo...**

Eta bitxikeria txiki bat: Web honetan, <https://washyourlyrics.com/>, eskuak garbitzeko argibideak ematen dizkigute, gure abesti kutunenaren erritmoan. Aukeratu besterik ez dago eta programak poster deskargagarri bat sortzen du. Guk, adibidez, Kortaturen "Mierda de ciudad" aukeratu dugu.

Antzerkiari dagokionez, **TEATROTEKA**k era guztietako antzezpen ugari eskaintzen dizkigu etxetik ikusteko (antzerki klasikoa, egungoa, literatur lanen egokitzapenak, komediak, gazteendako, haurrendako, antzerkia azpitituluekin edo audiodeskribapenarekin...). Orrialde honetan erregistratu besterik ez da egin behar, eta... oihala irekitzen da! www.teatroteca.es

Operara joan nahi baduzu, ez kezkatu hori ere posiblea da: **ABAO**ri esker Bilboko operara joan gaitezke itxialdi honetan. Helduak (**Rigoletto, La Bohème...**) baita txikiak ere (**Cuento de Navidad, Txanozuritu...**) <http://www.abao.org/es/AbaoEnCasa.html>



HAURRENDAKO BALIABIDEAK

Haurrak aipatu ditugu eta haiendako euskarazko baliabide asko dago. **ERAn** (<https://eranafarroa.eus/es/recursos/>) esate baterako, jolasak, filmak eta musika, besteak beste, aurkituko dituzue. Sukaldaritzaz gustatzen al zaie zuen seme-alabei? **GURASO.EUS-etik** (<https://www.guraso.eus/category/aisialdia/errezetak/>) kontatzen dizute nola egin txokolatezko triku bat eta beste errezeta batzuk... Hemen, <https://www.symboloo.com/mix/ipuinakeuskaraz>, oso ipuin bilduma polita prestatu dute umeei irakurtzeko.

Aukera ugari, azken batean (horretaz aparte, gimnasia egiteko, artxibo digitaletan ikertzeko, bidaia birtualak egiteko...) liburutegiari esker. Gure **Facebook-en** (<https://www.facebook.com/Ultzamako-liburutegia-Biblioteca-de-Ultzama-372009129848084/>), **twitter** (@ultzamako) edo **blog**ean

(<http://ultzamakoliburutegia.blogspot.com/>) sartu besterik ez duzue egin behar eta... mundua ikustera!

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburutegia



Cuando todo esto acabe.
Patxi Irurzun

2020ko martxoan

2020ko martxoan gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA Gartzaron

Jare Juanena Aranburu, martxoaren 16an sortu zen, Urko eta Josunen alaba, **Elizondo** etxean.



▲ *Hemen dugu Jare gurekin*

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak

Martxoan, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Julian Zilbeti Erbiti, martxoaren 5ean hil zen, 80 urtetan. **Beltraneko** apez misiolaria.



▲ *Julian Zilbeti*

Olague

Anunciación Urteaga laben, martxoaren 2an hil zen, 84 urtetan. **Matxineko** etxekoandre zaharra.

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

IMOTZ Eraso

Teofilo Agustino Malvarez, martxoaren 31an hil zen, 82 urtetan. **Bidarteko** nagusia.



▲ *Teofilo Agustino*

Etxaleku

Filomena Erbiti Lopetegi, martxoaren 31an hil zen, 100 urtetan. **Marijoaneko** alaba.



▲ *Filomena Erbiti*

LANTZ

Juan Jose Ariztegi Zia, martxoaren 25ean hil zen, 90 urtetan. **Petriñeneko** nagusia.
Jose Ignacio Ariztegi Zia, martxoaren 26an hil zen, 79 urtetan, **Petriñeneko** semea.



▲ *Jose Ignacio eta Juan Jose Ariztegi*

ULTZAMA Alkotz

Jesus Orkin Hernandorena, martxoaren 27an hil zen, 79 urtetan. **Salbadorren** etxeko nagusia.



▲ *Jesus Orkin*

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGİ PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



